

2. Merkatuaren segmentazioa

Lehen esan dugun bezala, gure produktua bereziki arazo ekonomikoak dituzten pertsonen bideratuta dago. Argia ordaintzen duenak gutxienez 16 urteko emantzipatutako pertsona bat izan behar da, bakarrik bizitzeko gutxienezko adina delako.

Gure bezero motak asko dira, baina produktua bereziki dago bideratuta familia ugariari (normalean zailtasunak dituztenei diruaren gestio ona izaten eta arazo ekonomikoak sortu ahal zaizkien familiei, argia modu antolatu batean ez badute kontsumitzen) eta pentsiodunei (pentsio limitatuak kobratzen dituztelako eta diru hori kudeatzeko lagungarria izan ahal da argiaren gaineko kostuak kontrolpean izatea).

Hala ere, gure produktua pentsatuta dago lanik ez duten familiek erabiltzeko, arazo ekonomiko larriak dituztelako eta haien gastuen kudeaketarako gure produktua oso lagungarria delako. Gainera, produktu hau erabiltzeko beharrezkoa da pertsona horrek estantzia finko (hau da, denbora luze batez egoteko etxebizitza edo alokairua) bat izatea, bestela ez duelako zentzurik gure produktua erostea. Adibidez, pertsona batek lana dela-eta etengabe badago leku batetik bestera bidaiatzen eta ez du denbora luzez inon egoten, gure produktua erostea ez lioke interesatuko.

Nitxo osatutako merkatua da, merkatu-segmentu bateko zati batean, bezeroek antzeko ezaugarriak eta beharrak dituztelako, eta ez daudelako merkatuak eskaintzen duen eskaintzaren barruan.